

La Machina Teatro

La Machina Teatro 1991ean sortutako konpainia profesionala da. Hogeita hamar obra baino gehiago ekoitzi ditu, gehienak haur eta gazteentzat. Hala, La Machina Teatro Te Veo (Haur eta Gazteentzako Antzerki Konpainia Nazionalen Elkarte) elkarteko kide sortzaileetako bat da. Haur eta gazteentzako egin dituen azken obren artean nabarmenenak hauexek dira: Michel Van Loo y Pierre Richards idazleen "Apoaren dantza" (La danza del sapo), Gianfranco Bella-ren "Asmatutako etxea" (La casa imaginada), eta Nino D'Introna eta Giacomo Ravichio-ren "Robinson eta Crusoe" (Robinson y Crusoe), hiruren zuzendari Carlos Herans izan delarik; "Ordezkaritza" (La Sucursal), Isaac Cuende egile eta Francisco Valcarce zuzendari izanik; "Santutasunak" (Beaterías) Isaac Cuende-rena eta Jon Ariño-ren zuzendaritzapean; "Bertso biodibertsoak" (Versos Biodiversos), honetan ere dira Cuende egile eta F.Valcarce zuzendari; "Kilker eta ipurtargiak" (Grillos y luciérnagas) Valeria Frabetti-ren gidaritzapean, eta "Itsas zabalean" (En alta mar) S. Mrozek autorearen obra F. Valcarce zuzendariaren aginduetara.

Konpainia Espainia osotik ibili da antzerki jaialdi garrantzitsuenetan parte hartuz eta autonomia erkidego guztietan barrena birak eginez. Horrez gain, nazioartean ere aritu da eta ikuskizunak antzetzu ditu Brasil, Amerikako Estatu Batuak, Portugal, Bosnia-Herzegovina, Italia, Ekuatore Ginea eta Egiptoko jaialdietan. Horien artean Oportoko (Portugal) FITEI, Londrinako Nazioarteko Jaialdia (Brasil), Curitiba Mostra (Brasil), Kairoko Antzerki Esperimentaleko Nazioarteko Jaialdia eta Boloniako Visioni di Futuro, Visioni di Teatro Jaialdi (Italia) garrantzitsuak daude.

Konpainiak hainbat sari jaso ditu bere lanei esker: "Arcipreste de Hita" XVI. antzerki nazionalako lehiaketan (Guadalajara, 1994) lehen saria eta zuzendaritza eta muntai eszeniko onenen sariak lortu zituen; Nazioarteko Antzerki Erakustaldi Alternatiboan (Madrileko Udazkeneko Jaialdia, 1994) produkzio onenaren saria eta zuzendaritzari aipamen berezia lortu zituen; Dallaseko Theater Festival-en (AEB, 1996) La Machina Teatrotako kideak Dallaseko "ohorezko hiritar" izendatu zituzten; Bosnia-Herzegovinan zehar bira egin zutenean (1997) UNOPSen (NATOren barneko erakundea) ohorezko aipamena jaso zuten; Viseu-ko Merkatarikoen Elkartearen eskutik urrezko domina jaso zuen La Machinak Portugalen bira egiten zegoela (1997); Museoen Klubak (Santander, 1999) izandako ibilbide artistikoa saritzeko ohorezko kide egin zituen, eta 2011, 2002 eta 2003an La Machina Teatro Arte Eszenikoen Max sarietan finalista izan zen, "Denboraren oinazea" (El dolor del tiempo), "Apoaren dantza" (La danza del sapo) eta "Burdinazko hitza" (Palabra de hierro) ikuskizunekin hain zuten. "Arcipreste de Hita" XXVIII. antzerki nazionalako lehiaketan (Guadalajara, 2006) "Ordezkaritza" (La Sucursal) ikuskizunak talde onenari eta zuzendari onenari lehen sariak lortu zituen. Hala, La Machina eta Valcarce lehiaketa horren 30 urteetan sari bat baino gehiago jaso duten konpainia eta zuzendari bakarrenerakoak bilakatu ziren. 2009an, "Bertso biodibertsoak" (Versos Biodiversos) obrak Camargo-ko udaleko "Gizarte eta Ingurune" saria jaso zuen, eta, azkenik, 2010ean, konpainia Arte Eszenikoen Max sarietan finalista izan zen beste behin, oraingo honetan "Robinson eta Crusoe" (Robinson y Crusoe) obrarekin.

Fitxa Artistikoa

Egilea

Gianfranco Bella

(Euskarazko bertsioa: Miel A. Elustondo)

Antzezleak

Reyes Molerés
Eriz Alberdi

Zuzendaria

Carlos Herans

Ekipo teknikoa

Víctor Lorenzo
Pancho Villar

Distribuzioa

Rocío Tagle

Koordinazioa

Luis Oyarbide

Konpainiako zuzendaria

Francisco Valcarce



LA MACHINA TEATRO

Cardenal Herrera Oria etorb. zk.g.

39011 Santander

Telefonoa: 942201913 - 942355769 - 689397672

Fax 942201903

email: machina@lamachinateatro.com



Lankidetzarekin Teatro Paraiso Antzerkia

www.lamachinateatro.com

EUSKARAZKO BERTSIOA

Miel A. Elustondo

EGILEA

Gianfranco Bella

EXTE ASMATUA



Umentxoentzako Proiektu Bat: ETXE ASMATUA



“Etxe asmatua” antzekizuna, 3 eta 6 urte bitarteko umeei eta fami-
liakoei zuzenduta dago. Obra honetan imajinario-jolas bat eta etxe
bat eraikitzea proposatzen da eta, hau gauzatu nahian, haurtzaroan
sortzen ditugun alegiazko elementu guztiez baliatzen gara.

Antzekizun naif honetan, pertsonaiek “euren etxeko” espazio fisikoa
eta, areago, espa-zio emozionala eraikitzea jolasten dira, bertan ar-
gia sartzen da, jaten dute, lo egiten dute, jolas-ten dira, lagunak hart-
zen dira, kondairak kontatzen dira... ametsetako espa-zioa da.

Egilea: Gianfranco Bella

Egile, idazle, antzezle... denetarikoz zereginetan aritu da arlo honetan;
lehen adinentzako antzerkian, batez ere. Gianfranco Bellak Milanen
garatu zuen bere lana, izen handiko TEATRO DEL BURATTO-rekin ba-
tera, non lehen adinentzat proposatzen ziren ikuskizunak egiteaz gain,
formekin eta objektuekin animazio-ikuskizunak ere lantzen baitziren.
Egile honek garatutako obren artean honakoak dira aipatzekoak: Yo-
landa Cappi-rekin egindako “Txano zuritxoa” (Caperucita Blanca),
Bruno Munari-ren testuan oinarritutakoa; eta “Haizeak esan ziona” (Lo
que el viento le dijo) eta “Mahai azpian” (Bajo la mesa). Azken obra
horietan, ikuskizun horietarako berariaz egindako ez ohiko espazioe-
tan, 2 eta 5 urte bitarteko ikusleekiko erlazioa lantzen da; izan ere, ikus-
kizun hauek, Haur Eskoletan sentimenei buruzko tailer-lanak gauzatu
eta gero antolatu dira. Teatro del Burattok hurrengo sariak ere hartu
ditu: “Stregagatto Saria”, Italiako Antzerki Erakundeak ematen due-
na; “Biglietto d’oro-AGIS 1995”; eta Uruguaiako Kritikari Erakundeak
ematen duen “Florenzio Sari” garrantzitsua. Gianfranco Bella 2010ean
hil zen.

Antzezleak:

Reyen Molereseak

William Layton Antzerki Laborategian eta Getxoko Antzerki Eskolan
ikasi, eta Geroa, Siroco, T(arte)an eta Teatro Paraiso konpainietan lan
egin du. ETBko eta beste telebista kate batzuetako zenbait programan,
“Hospital Central” en, besteak beste, aritu da eta baita hainbat
pelikulatan ere.

Baina aurkezpen eszeniko xumea dugu. Bertan, espazioa “irudipen es-
pazio” bilakatzen da, eta aktoreek egindako jolasek giro hurbil, bero
eta eroso sortzen dute, gure etxean sentitzen dugunaren parekoa.

Bi antzezlek jokatzeko duten ikuskizun eder hau koloredun tarima la-
pran baten gainean garatzen da, non zenbait ate eta sabaizulo agert-
zen baitira etxe asmatu horretako objektuak eta elementuak erakutsiz,
eta tarima arrapala magiko bilakatuz.

Zuzendaria: Carlos Herans

Carlos Herransek antzerkigintzan esperientzia luzea du, eta berrogei
urtez jardun du haurrentzako antzerkien alorrean, irakasle, pedagogo
eta antzerkiari eta irakaskuntzari buruzko hainbat artikuluren egile izan
baita. Hogeita bost edizioz izan da Madrilen ospatzen den Haurren-
tzako Antzerki Nazioarteko Astearen (Acción Educativa erakundeak),
Madrileko Uda Eskolen (24 urtez), eta Madrileko udalak antolatutako
Antzerki eta Irudi kanpainen zuzendari artistikoa. Zuzendu dituen ikus-
kizun gehienek eszenografia eta argiztapen zuzendaria izan da, eta
baita beste askorena ere. Hogeita hamar ikuskizun baino gehiago zu-
zendu ditu, hainbat egilerenak, baina haurrentzako antzerkia lantzen
du batez ere. Zenbait konpainietan jardun du zuzendari, hots: Gayo
Vallecano, Achiperre antzerki kooperatiba, Teatro Paraiso, La Machina
Teatro, Katarsis eta Da.te Danza. Hala, ondorengo obrak zuzendu ditu:
Gianni Franceschini-ren “Aladino”, Michel Van Loo-ren “Fuenteove-
juna 1476-1999” bertsioa, Roberto eta Valeria Frabetti-ren “Mowgli,
haztea abentura bat da” (Mowgli, la aventura de crecer), eta Roberto
Frabetti-ren “Izarrak” (Estrellas). La Machina Teatrotan Michel Van
Loo eta Pierre Richards-en “Apoaren dantza” (La danza del sapo),
Gianfranco Bella-ren “Asmatutako etxea” (La casa imaginada), Nino
D’Introna-ren “Pinocho Circus” eta D’Introna eta G.Ravicchio-ren “Ro-
binson eta Crusoe” (Robinson y Crusoe).

Eriz Alberdi

Donostiako Arte Eszenikoen Tailerrean ikasi zuen eta Teatro Paraisoko
euskarazko antzezetan aktore aritu ohi da. Horrez gain, Kanpin-
gags, Sonitex C.B eta Vaiven Producciones-en, eta baita bestelako
ikus-entzunezko ekoizpenetan ere, jardun du.

